

MITOTIK FILOSOFIARA: PRESOKRATIKOAK. GREZIAKO PENTSALARI NAGUSIAK: SOFISTAK, PLATON ETA ARISTOTELES.

I-AURKEZPENA.

Ezagutza giza jarduera bat da, beste batzuen artean, eta Filosofia ezagutza-mota bat. Baina ezagutzean, Nietzschek zioen bezala, metafora bat egiten dugu, zeren gu eta errealitatearen artean gaindiezinezko etendura dagoen. Beraz, ezagutzean irudikapen bat egiten dugu. Gero, irudikapen honi kontzeptuak esleitzen dizkiogu, bigarren metafora eginez. Baina metaforak egitearen prozesua ez da hor gelditzen. Izan ere, kontzeptu horiek azaltzeko gizakiok asmatuak hitzak erabiltzen ditugu eta, hauen bidez, besteei gure pentsamenduak helarazi dizkiegu. Ondorioz, hasierako pentsalariei buruz dakigun gehiena beste batzuk idatzitakoaren bidez ailegatu zaigu, honek dakartzan ondorioekin. Sokratesi buruz dakiguna Platonen bidez, batez ere, ezagutu dugu; eta Platon eta Aristotelesi buruzkoa haiek utzitako idatzien bidez. Baina kasu guztietan, baita azken hauetan ere, gu gara idatzitakoa -letrak, hitzak, esaldiak...- interpretatu behar dugunok edo, bestela, interpretatzaileen -haiei buruz idatzi dutenak- idatziak interpretatu...Honek, dena den, ez gaitu, nire ustez, ezkeptizismo absolutura eraman behar, baina bai ezagutzarekiko umiltasunera, ezagutza hori zientifikoa izan arren.

II- HURBILTZEKO BIDEAK.

Dugun gaiari aurre egiteko posibilitate ezberdin dago: bat -testu liburuetan gehien erabilia izan dena- pentsamendu-historiari jarraitzea; beste bat, ezagutza edo, hobe esanda, zientzia norabide-lerrotzat hartzea; hirugarrena, giza izaera eta berarekin lotutako Etikak izandako aldatetetan oinarritzea; eta laugarrena, ekonomian eta politikan gertaturiko aldaketa historikoetan oinarritzea. Lehenengoa edozein testu-liburutan aurki daitekeenez, ez dut erabiliko; bai, berriz, beste gainerakoak. Ezagutza zientifikoaren iritzia erabili duena Popper da; Etika abiapuntutzat hartu duena, ordea, Nietzsche; eta ekonomian oinarritu dena Marx.

III- AURRETIKOAK

Dakigunez, k.a. bigarren milurtekoan, herri heleniarrek -dorioak, jonikoak eta eolikoak- Grezia inbaditu zuten. Mende ilun batzuk pasa eta gero, X. mendean hain zuzen, Grezia eratzen zuen nekazal sisteman monarkia txikiak inposatzen dira. Orduan, Homeroren Iliada eta Odisea ziren orduko hiritarrek zituzten tresnak bizitza, nolabait, antolatzeke. VIII. eta VI. mendeen artean, aipatu monarkia horiek errepublikak bilakatuz joan ziren, Esparta izan ezik, zeren honek monarkia izaten jarraitzen baitzuen. Aristokraziaren kontrako deskontentamenduak herrian oinarrituriko tiraniak ekarri zituen eta, honekin batera, ondasunen banaketa justuagoa eta artisautza, merkatalgo eta koloniakuntzaren garapena.

Filosofia, k.a. VI. mendean, Grezian jaio izan zela zalantzarik gabe onartzen da gaur egun, nahiz eta Indian budismoarekin eta Txinan taoismoarekin antzeko zerbait gertatu zela ezagutu. Beste gaia da ea, jaiotze horrek, eraginik jaso zuen edo autonomoki gauzatu zen erabakitzea. Eta, honetan, adostasunik ez da. Izan ere, batzuen ustez pentsamendu greziarraren sorrera ekialdean -Sumerean, Kaldean, Asirian, Egipton...- bilatu behar da, eta beste batzuk, berriz, erabat autonomoa dela diote. "In medio stat virtus" delakoari jarraituz bi jarrera horiek elkargarriak direla esan daiteke. Dena dela, ekialdeko kulturetan sasi

filosofikoak diren kontzeptuen existentzia ontzat jotzen da, beraien adibideak hauexek direlarik:

1. Egipton eta Mesopotamian, jainkozko batasun itxuraz, agertzen den Batasun Unibertsalaren ideia:

“...zenbatezinezko izenen jainkoa, jainkoak diren kideak sortzen dituen”; “...bakarra den Bata, aiten aita eta amen ama”.

2. Kosmosen jatorria anabasa urtsutik -Tiamat Babilonian eta Nun Egipton- eta ilunpetik ordenaketarako eta argitarako -Marduk Babilonian eta Ra Egipton- pauso bezala agertzen da:

“Hasieran Nun zen, masa isurkari premiazkoena, zeinaren sakontasun infinituetan gauza guztien ernamuin nahastuak flotatu egiten ziren. Eguzkia distiratzten hasi zenean Lurra lautua izan zen eta urak bi masa ezberdinetan bereiziak izan ziren: bata ibaiak eta itsasoa sortu zituen; besteak, airean esekita, zeruaren ganga -goiko urak- eratu zuen eta, haien zehar, betiereko korrante batek eramanda, astroek eta jainkoek nabigatzeari ekin zioten”.

3. Prozesu kosmogoniakoaren -kosmosen sorkuntza- azalpen ezberdinak:

a- Lehenengo Printzipioaren berezko ahalmenagatik.

b- Ekaiaren gaineko Izpirituaren eskuarmenagatik.

c- Kontrako ahalmenen borrokagatik (maitasun/gorroto: Set/Horus Egipton).

4. Itzulera ziklikoa, dena gobernatzen duen lege bezala -Big-bang teoria batekin antza handia dauka ideia honek-.

5. Gorputz hilkorra eta arima hilezkoaren arteko dualismoa -bereizketa-. Ideia hau, besteak beste, Hinduismoan eta kristautasunean agertuko da geroago.

IV- PENTSAMENDU GREZIARRAREN GARAPENA LAGUNDU ZUTEN ZIRKUNSTANTZIAK.

Filosofia zergatik Grezian, eta ez beste inon, sortu zen azaltzeko arrazoi hauek aipatzen dira:

1. Merkatal hedakundea. Honek greziarrei aberastasuna, mentalitate irekia eta, bidaetan segurtasuna aurkitzeko, ikerketaren bulkada eta teknologiaren aurrerapenak ekarri zizkien.

2. Ekialde hurbilekiko kontaktua. Ez dugu ahaztu behar ekonomikoki, militariki eta kulturalki hala Pertsia nola Egipto herririk garatuenak zirela. Greziarrek, dudarik gabe, asko ikasi zuten haiengandik -Egiptotik geometria eta Pertsiatik aritmetika eta astronomia, besteak beste-.

3. Demokraziaren ezarpena. Demokraziarekin batera esklabutzaren onarpen legala, hots, instituzionalizazioa etorri zen eta, berarekin, aisia, Aisiak jarduera politikoa eta hausnarketa filosofikoa erraztu zuen.

4. Jeinu greziarra. Hau da, batzuen ustez greziarrek beste herriekiko ezberdintzen zituen berezko ahalmena zuten. Azalpen hau, dena dela, biologista delakoan nago garrantzi gehiegi ematen baitzaio herentzia genetikoiari.

5. Liburu sakratu eta apez-kasta indartsuaren gabezia. Hauek dira, gehienek ustez, arrazoirik inportanteenak. Apez-kastek liburu sakratuen beharra zuten, eta dute, erlijioak bete nahi duen paper ideologikoa aurrera eramateko. Liburu horien existentziak apezek egiaren jabetzea dakar eta, honekin, herriaren kontrol ideologiko eta erreala. Greziarrek, beraz, askatasun handia izan zuten, zentsurarik ez baitzegoen.

V- MITOTIK LOGOSERA.

Filosofia baino lehen mitoak ziren errealitatea azaltzeko zeuden bideak. Zertan ezberdintzen dira *mitoa* eta filosofia edo pentsaera arrazionala *-logos-*?

Mittoa antzinako garaietan gertaturiko zerbait fabulosoaren kontaketa litzateke, errealitatea azaltzen saiatzeko. Mittoa kolektiboki sortu da, fedean oinarritu da, ahozko tradizio bidez igortzen da eta jainkozko errebelaziotzat jotzen da. Ondorioz, mitoa *irudimenezko, ez-kritiko eta nahierarakoa* dela esan daiteke. Horrez gain, beste fenomeno berezia gertatzen da mitoetan: antropomorfizazioa; hots, gizakien artean gertatzen diren erlazioak unibertsoari ere aplikatzen zaizkiola. Horrela, fenomenoak azaltzeko jainkoen arteko liskarrak, pasioak eta abar erabiltzen dira.

Pentsaera arrazionalak, bere aldetik, jainkozko nagusikeria eragotzi zuen eta, bide nabarrez, kontzeptu berriak sortzeari ekin zion. Gainera zentzuen itxura eta arrazoiaren arteko oposaketa planteatzen du, zera da, aldakorra dena eta iraunkorra denaren artean: arrazoimenaren bidez kaptatzen diren batasuna, iraupena eta benetakoa denaren aurrean, zentzuek agertzen zaizkigun aniztasuna, aldaketa eta itxura jartzen dira. Beraz, pentsaera arrazionalaren ezaugarriak laburbilduz, *arrazoimenezko* (zergatiak ematen baitira), *kritiko eta legeen bidez egina* dela onartzen da. Horretaz gain, arbitraltasunaren ordez *beharrezkotasuna* kokatzen da. Hau dena lortzeko, errealitatearen sorburua eta azken azalpena den zerbait bilatu behar zuten, zerbait hori gauza guztiekiko komuna zelarrik. Eta aurkitu ere egin zuten: *Natura* -physis- kontzeptuan hain zuzen. Filosofatzeari hasiera eman zion galdera, hau bezalako bat izan zen: zer da *Natura*? Edo berdin dena: zer da *Izatea*?

Mitotik Logoserako pausoa apurka-apurka gertatu zen eta Hesiodoren obran -k.a. VII mendean- sumatzen dela esan daiteke. Izan ere, bere ‘Teogonian’ Musek Homeroren “egitxura engainagarriaren munduari egiarekin aurre egin diezaiola” agintzen diote. Egia erakusteko nahia da, beraz, filosofatzearen lehendabiziko elementua. Horretaz aparte, filosofiarekin zerikusirik duten zenbait galdera agertzen dira Hesiodoren obran: zein da gauzen sorburua? zein izan da sortu zenetik kosmosak izan duen bidea? Sorburuaz hitz egiteko asmoa eta osotasunari buruzko kezka dira filosofiarekin erlazionatuta dauden beste elementuak. Dena dela, bere erantzunek mitoen itxura dute, erabilitako analogiak mitoetan agertzen diren bezalakoak baitira.

Eta, aurreko guztiarekin lotuta, mirespena agertzen da, munduaren aurrean izandako sentimendu ikaragarria benetan. Munduan bertan aurkitu behar zuten inon idatzirik ez zegoen erantzuna eta honek jakin-mina piztu zien greziar jakintsuei. Eta jakin-minari grekaraz Filosofia deritzo.

VI- EZAGUTZA ETA ZIENTZIA.

Mitotik ezagutza ziurra ziren, jakinduria edo ‘sofia’ alegia. Haien esandakoa kritika ezina zen zeren jainkoek esandakoaren kondairatzat hartuak baitziren. Mitoetan ikerketarik ez dago, jakin behar dena esanda dagoelako. Zer suposatzen du, orduan, Talesen ikuskerak? Dogmatismoarekiko apurketa, hain zuzen. Izan ere, Tales, behaketan oinarriturik, mundua, errealitate fisikoa, ulertzen saiatzen da. Horretarako galderak egiten dizkio bere buruari: nondik dator dagoen guztia? ba ote da gauza guzti horiek komun duten zerbait? zer da, aldaketak izan arren, gauzen itxura iraunarazten duena? zer dela eta aldaketak daude? Eta galdera guzti horiek galdera bakar batean bildu zituen: zer da gauza guztien ‘arje’? Bere erantzunak xumea badirudi ere -arjea Ura zela esan baitzuen- ez dago, ordea, gaur egun errealtzat jotzen denetik hain urrun. Egiatzki, gaur egun onartzen da Hidrogenoak unibertsoaren % 90a. suposatzen duela eta Hidrogenoa, baita, uraren herena denez Talesen erantzuna, nahiz eta hemen aipatu datuak ez ezagutu, nahiko zuzena zen. Baina bere ospea ez zaigu ailegatu emandako erantzunagatik, egin zituen galderengatik baizik. Galderak egiteak jakin-mina suposatzen du eta jakin-minari, grekaraz, filosofia deritzo. Beraz, sofistik filosofiara pasatzen da Talesen bidez eta hori da bere ekarpenik garrantzitsua. Horretaz

gain, Talesek, ikasleak bazituen ere, ez zuen jarraitzailerik izan, hots, ez zuen bere ideiak mantentzeko eskolarik eraiki, honen froga garbia bere ikasleek emandako erantzunak direlarik. Izan ere, Anaximandro ohartu zen Talesen erantzunak arazo bat planteatzen zuela, hots, nola den posible kontrakoak diren elementuak -adibidez, beroa eta hotza- substantzia berberetik sortu. Hau konpontzeko, Anaximandrok beste arje eskaini zuen: 'Apeiron' edo mugaezina. Apeirona ez da ezer zehatza, baizik eta bere baitan existitzen diren elementu guztiak, kontrakoak barne, nahastuta daudela. Popperren ustez, aipatu bi filosofo hauetan ikus daiteke zientziak jarraitutako bidea zein izan den: 1., problemak planteatu edo aurkitu -gure kasuan, arjea zein den -; 2., problema horiek ebazteko hipotesiak egin -Talesen erantzuna-; 3., hipotesi horiek kritikatu -faltsuak direla frogatu, Anaximandrok egin zuen bezala-; eta, 4., hipotesi berriak eskaini -Apeiron-. Beraz, esan daiteke Popperrek proposatzen duen zientzia egiteko metodoa hasierako filosofoengan iradokia agertzen dela. Hori metodoari dagokionez. Dena den, eta Popperrekin bat eginez, hasierako filosofoengan badago metodoa baino garrantzizkoagoa den elementua: jarrera kritikoa. Honen bidez pentsaera libreari ateak irekitzen zaizkio, mitoek zekarren dogmatismoa baztertzen delarik. Jarrera honi 'a priori praktiko' deritzo.

Presokratiko guztiek, ordea, ez zieten behaketari eta jarrera irekiari garrantzi berbera eman. Pitagorikoek, adibidez, eskola bakarrik ez, sekta erlijiosoa ere eratu baitzuten eta, gainera, gorputzarekin zer ikusirik zuen orori mesprezuz begiratzen zioten. Hauentzat arje-a ez zen zerbait materiala, baizik eta formala -zenbakiak- eta, noski, zenbaki horiek hala nola haien arteko erlazioak ere -eragiketa matematikoak, alegia- arrazoimenaren bidez bakarrik ezagut daitezke -nahiz eta zenbakiak adierazteko harriak, grekaraz kalkuluak, erabili-. Antzeko zerbait esan daiteke Parmenidesi buruz. Honek, bere poema famatuan, jakinduriaren jainkosak berari transmitituko egia kontatzeari ekiten dio. Egia hau, arrazoimenaren bidez lortu behar dela dio, zeren zentzuek esandakoa faltsua baita. Eta pentsatzea eta izatea gauza bera direnez, zuzenki pentsatzen dena existituko da. Pentsatzeko kontzeptuak erabiltzen dugunez kontzeptuak analizatu ezkerre errealitatea ezagutuko dugu. Lengoia da, beraz, Parmenidesen oinarria; honen analisisian 'izan' aditzaren garrantziaz ohartzen da eta, modu absolutu batez hartuz, bi posibilidadetarako bakarrik dagoela dio -Izan edo Ez-izan- lehenengoa existitzen den bakarra delarik. Abiapuntu honen ondorio logikoak aldaezintasuna, mugimendu-eza eta aniztasun falta dira, hots, mundu fisikoaren ukapena.

Beste arlo batean, pitagorikoak metodo axiomatiko-deduktiboaren asmatzaileak izan omen ziren, Parmenides, eskema logiko-deduktiboa -identitate eta ez-kontraesaneko printzipioetan oinarriturik- erabili zuenez, logikaren aitzindaritzat hartua izan da eta honen ikaslea, Zenon, 'aporiak' -egiak eta faltsuak diren arrazonamenduak- lehen erabili zituen izan zen.

Miletoko pentsalarien sentipenezko ezagutza eta Italikoen arrazoimenezko ezagutzaren arteko dualismoa gainditzeko bidea Heraklitok eskainiko digu. Bera izan zen, askoren ustez, dialektikaren asmatzailea. Batetik, tesiaren papera hartuz, zentzuen datuak ditugu -aniztasuna, etengabeko aldaketak- eta, bestetik, antitesiarena eginez, arrazoimenak eskatzen duena -batasuna, iraupena-. Bi kontrako elementuen adostasuna -sintesia- gure baitan aurkituko dugu, gure arrazoimena eta unibertsoarena gauza bera direla konturatzean hain zuzen. Arrazoi edo logos horrek arje-a Sua dela, justua borroka dela eta kontrakoaren arteko borrokatik harmonia sortzen dela adierazten digu.

Lehen aipatu dugun jarrera ireki hori sofistekin berreskuratu egin zen baina, agian, gehiegikeria bilakatuz, zeren eta irizpiderik ez dago, hitzen balorea galtzen da eta eszeptizismo geldora ailegatzen da. Izan ere, sofistentzat ezagutza zentzazioetan datza eta zentzazio horiek bakoitzarengan ezberdinak direnez ezagutza komun edo objektiborik ez dago, hitzak joko bilakatzen direlarik. 'Egia' absoluturik, beraz, ez da eta, gainera, ez du merezi bere bila aritzeak. Nahikoa da, hau egiaztatzeko, Gorgiasen, Protogorasen ikaslea, esandakoa gogora ekartzea: "Deus ez da existitzen, zerbait existituko balitz ezin izango genuke ezagutu eta zerbait ezagutuko bagenu ezin izango genuke komunikatu".

Sokratesen papera, berriz, kontraesanekoa da. Pertsonalki jarrera irekia izan zuen, zeren eta bere filosofiaren abiapuntua jakineztasuna da. Baina gero, egia bada berari buruz ailegatu zaiguna, egiaren bila abiatzen da, gure baitan, hots, gure ariman dagoela baieztatuz. Gainera berari interesatzen zaion egia ez da munduari buruzkoa, moralari buruzkoa baizik, egia hori ideiak direlarik. Filosofoaren papera, beraren ustez, ez da ideiak igortzea, ariman bilatzen laguntzea baizik -honi 'maieutika' zeritzon-. Ideia moralak aurkitzeko metodoa indukzioa litzateke (partikularretik-orokorrera pasatzea, hots, definizioa) eta, horregatik, Aristotelesek indukzio-metodoaren asmatzailatzat jo zuen.

Platonek, pitagorikoen eta Parmenidesen arrazionalismoari jarraitzeaz gain, Sokratesek utzitako hutsunea betetzeari ekin zion. Izan ere, Sokratesek ideiak gure ariman kokatzen bazuen, Platon urrutiago joango da, ideiak beste mundu batean -benetako eta aldazina- kokatuz. Gauzak, mundu fisikoa, bestearen kopia hutsa eta aldakorrek direnez ez zaizkio bereziki interesatzen. Eta ezagutzea errealitatearekin harremanetan jartzea denez, bi errealitate-mota izanda, bi ezagutza-mota ere izango dira: sentipenezkoa -iritzia- eta adimenezkoa edo arrazionala -zientzia-. Beraz, errealitateari buruzko ezagutzak -Fisika- ez du, berez, balore handirik, bakarrik adimenezkoa lortzeko bidea izateagatik lortzen du balorea. Adimenezkoa -Matematika eta Ideien ezagutza edo Dialektika-, berriz, benetako errealitatea ezagutzeko eta, honekin, zoriontasuna lortzeko ezinbesteko bidetzat jotzen du Platonek. Honen helburua Heraklito eta Parmenidesen arteko dualismoa gainditzea bazen ez zuela lortu edo, okerragoa denez, bere erantzunak zeuden problemak baino gehiago sortu zituela esan daiteke: bi errealitate ezberdin -bata, inportanteena, frogaezina gainera- eta bi ezagutza ezberdin -Fisikaren bazterketarekin-. Aipaturiko Fisikarekiko jarrera ezezkoak min handia egin zion zientziari zeren mundu fisikoari buruzko interesa eta, beraz, ikerketak egiteko gogoak desagertzen baitira bere jarraitzaileengan eta hauek asko izan dira historian zehar. Azken hauen artean pentsalari kristau asko ditugu, zeinek kristautasuna arrazionalizatzeko platonismoak ematen zituen erraztasunak aprobetxatuz, idealismo eta metafisika bultzatu zituzten zientzia fisikoaren kalterako. Zientzia mailan zerbait eskertzeko badu Platonek, B. Farringtonen ustez, Matematikari emandako garrantzia eta bulkada lirateke.

Aristotelesen ezagutza eta zientziarekiko jarrerak ere tratu berezia merezi du. Hiru fase ezberdinetan banatzen da aipaturiko jarrera hori. Lehenengoan idealista da eta Sokratesek planteatutakoari darraio; bigarrenean, Platon zaharrarekin batera, sentipenezko ezagutzaren garrantzia onartzen hasten da; hirugarrenean, azkenik, metodo zientifikoa berrezartzen du. Lehenengo faseari unibertsoari buruzko teoriak dagozkio -'Zeruei buruz' delako tratatua-. Hemen, idealismo sokratikoari jarraituz, arrazoiak zentzuen laguntzarik gabe egia aurki dezakeela defendatzen du, horretarako logika eta, batez ere, bere parte den silogismoa erabiliz. Ondorioak garbiak dira: errealitatearekin zer ikusirik ez duten proposamenak agertzen dira (geozentrismoa, lurraren mugimendu eza, unibertsoa esferen teoria eta abar). Bigarren fasean teoria fisikoak azaltzen ditu. Orain, berriz, materia eta forma -fisika eta matematika- bereizten ditu eta horregatik errealitateak dituen kausak anitz dira. Presokratikoen artean monistek kausa materiala -lau elementuak- aipatzen zuten, pluralistek, berriz, kausa eragilea -maitasuna/gorrotoa edo Nousa-, Platonek kausa formala -ideiak- bakarrik planteatzen zuen eta Sokratesek, azkenik, kausa finala edo teleologikoa. Aristotelesek errealitatea azaltzeko lau kausak erabili behar zirela zioen. Baina ideiarik inportanteena hala materia nola forma errealitatearen bereiztezinezko osagaiak direla baieztatzean datza. Sokratesek eta Platonek bakarrik formalari eman zioten garrantzia eta gainera sentipenezko mundutik at kokatu zuten; Aristotelesek, bere aldetik, pentsamenduan bakarrik bereiz daitezkeela zioen, errealitatea materialian erantsitako forma dela defenditu zuelarik. Testuinguru honetan, Aristotelesek bere Logika sortu zuen eta esan beharra dago bere fundatzailea kontsideratua izan dela. Logika zientzia egiteko tresnatzat hartu zuen, bere oinarria silogismoa izanik. Silogismoa, berez, dedukzioa da baina alde aurretiko indukzioan oinarrituta. Aristotelesek, ordea, eta azken momentu arte, dedukzioari eman zion garrantzia

indukzioa bigarren maila batean utziz. Honek kalte ikaragarria egin zion Fisika zientziari, unibertsoari buruzko ideiak, besteak beste, Errenaisantza arte mantendu baitziren, okerrak izan arren. Dena dela, hirugarren fasean, zaharra zenean, behaketari inportantzia gehiago eman zion -‘...behaketari teoriei baino garrantzi gehiago eman behar zaio, eta teoriei behatutako egiteek baieztatuak badira bakarrik’-. Orduan izan zen bere lan biologikoak egin zituenean, haien artean bizidunen sailkapena. Zoritxarrez, azken fase honek eragin gutxiago izan zuen geroagoko zientzian, eta pentsalari kristauek, Aristotelesen pentsamendua kristianizatu zutenean, ahaztu egin zuten. Honek zientziaren mende askotako atzerapena ekarri zuen.

VI- ETIKA.

Etika portaerari buruzko hausnarketa da, bere abiapuntua gizakien izaerari buruzko teoria delarik. Segun eta nola kontsideratzen dugun izaera hori, halako Etika planteatuko dugu. Azken finean baloreak dira Etikak proposatzen duena eta balore horiek nahi den izaera lortzeko bideak dira. Nietzschek bi izaera-mota bereizten ditu antzinako Grezian, -orduko Dionisos eta Apolo jainkoek adierazten zituztenak-: Dionisiakoa eta Apolineoa. Lehengoak alaitasuna, bizitzeko gogoia eta instintiboa adierazten dituen bitartean, bigarrenak ordena, neurria eta arrazoia azaltzen ditu. Biak batera agertzen dira heleniar tragedian, zeinak munduari buruzko ikuspen bat adierazten duen. Bien arteko etengabeko borroka izan dela dio, azkenean Apolineoa inposatu delarik. Honekin, moral-mota bat zabaldu da munduan zehar: ‘esklabuen morala’, hain zuzen. Izan ere, Grezian, presokratikoen dionisiakoa ordezkatzeko zuten, haiek zuten izaera ‘aristokratikoa’ izanik, baina Sokratesekin esklaboen iraultza hasten da eta Platonekin -maisua usteldua- bere garaipena ailegatu zen. Orditik aurrera, arrazoia senei inposatzen zaie usteltze prozesuari hasiera ematen diolarik. Zer da Sokratesek egin zuena? Greziar esentzia, hots, “Homero, Pindaro, Eskilo, Fidias, Perikles, Pitias eta Dionisos”, ukatu egin zuen. Sokratesengan arrazionala bakarrik garatzen da, pasioak baztertuta utziz. Sokratesek “gizaki teorikoa” eta errealitate osoa ezagut daitekeelako ideia asmatu zituen. Honekin bukatzen da greziar tragediak adierazten zuena, zera da, bakarrik fenomeno ezagut daitekeelako ideia. Beraz, Sokratesekin mundua joko bezala ikusteko ideia deusezten da. Hau egiteko arrazoia, Nietzschek ustez, bere izaera zen. Sokratesen izaera eta sorburua plebeiztat jotzen ditu Nietzschek eta gainera itsusia zela dio. Zer ikusirik dauka itsusia izateak tratatzen ari garen gaiarekin? Kanpotik itsusia izateak barrutik ere hola izaten bultzatu zion Sokratesi, zeren, edertasun falta izanik, beste modu bat asmatu behar izan zuen gazte ederrak liluratzeko: elkarrizketa -dialektika-. Honekin arrazionaltasunak senak ordezkatzeko, izaera berri bati ateak irekiz. Horrela adierazten du Nietzschek orain arte esandakoa: “arrazoi=bertute=zoriontasun parekidetasuna existitzen den ekuaziorik arraroena da, eta bere kontra antzinako heleniarraren senak ditu”. Ekuazio hori, noski, Sokratesek planteatu zuena da.

Nietzschek interpretazioa alde batera utzita, guk ere antzinako Etika balora dezakegu. Sofista gehienekin bat eginez, etika zerbait erlatiboa dela esango genuke, naturala den etikarik onartzen ez dugularik. Etika, Sartrek zioen bezala, asmatu behar dugun zerbait litzateke, gure askatasun errotikoan oinarritzen dena eta erantzukizun osoa dakarkiguna. Nolakoak garen guk geuk erabakitzen dugu, balorez osaturiko proiektua aurrera eramaten saiatzen garelarik. Hau horrela izanda, antzinako etiken artean proposamen ezberdinak agertzen dira baina bi multzotan bereiz ditzakegu: bata, berdintasuna defenditzen duena eta, bestea, ezberdintasunean sustraitzen dena. Lehenengoa defendatzen zutenen artean Demokrito, Sofista asko -Hippias, Antifonte- eta Sokrates ditugun bitartean, bigarrena planteatu zutenen artean beste sofistak -Kalikles- Platon eta Aristoteles daude. Izan ere, hala Platonek nola Aristotelesek etika bakar bat eskaintzen duten arren hiritarregana zuzendutako etika da eta hiritarrak, ongi dakigunez, ez ziren Grezian zeuden biztanle

guztiak, gizon libreak bakarrik baizik. Beraz, emakumeak eta esklaboak ez dira etikaren helburua. Platonek, ordea, Aristoteleseko ezberdintasun bat zuen aipatutako puntuan: berak emakumeek eskubide berdinak zituztela eta bereizketak heziketak bakarrik egin behar zituela zioen. Bere Etika, dena den, giza izaerarekin lotzen du: hiru izaera dagoenez, hiru bertute ere izango dira, baina bakarrik gizakirik hoberenek lor ditzakete bertuterik hoberenak -jakinduria eta zuhertasuna- zeinen bidez Ongia, balorerik gorena, eskuratzen den. Beraz, bere etika aristokratikoa dela esan daiteke, eta ez berak zioen zentzuan -‘aristos’=hoberenak-gaur egun duen zentzuan baizik -pribilegioak dituztenak- zeren eta heziketaren arduradunak, teorian, hoberenak ziren baina horiek nortzuk diren jakiteko metodorik ez zuen aipatu. Gainera, etikoki hoberenak zirenak politikoki gobernariak izango ziren. Praktika eskolarik hoberena dela esaten bada, Platonen kasuan erabat justifikaturik dago, zeren berak planteatutako proiektu politiko-etikoa aurrera eramaten saiatu zenean, porrot egin baitzuen. Aristotelesek, bere aldetik, etika aristokratikoa bakarrik ez, baztertzailea ere planteatu zuela esango genuke. Izan ere, bi izaera ezberdinak daudela zioen: esklaboena eta libreena. Lehenengoaren barruan gizonik -ez gizakirik- hoberenak lirarteke -arrazoimena garatzeko ahalmena dutenak alegia- eta bigarrean emakumeak, esklaboak, umeak eta beste gainerako gizonak. Zoriontasuna errealitatean dauden elementu unibertsal eta beharrezkoen kontenplazioan datzanez eta kontenplazio honetara gizonik hoberenak bakarrik ailega daitezkeenez zoriontasuna ez da gehiengoak lor dezakeen zerbait.

VII- POLITIKA.

Filosofiaren sorburuan egoera ekonomiko-politiko-sozialak izan zuen eragina inork ez du ukatzen. Dena dela, elementu anitz horri garrantzi ezberdina eman zaio. Batzuk, bigarren mailako elementua izan dela uste izan dute; beste batzuk, ordea, elementu garrantzitsuena kontsideratu egin dute. Hemen, azken hauekin bat natorrela esan beharra daukat. Esklabutzak eta bere instituzionalizazioak, hots, esklaboen egoera arauen menpe jartzeak, heleniar hiritarrentzat aisia suposatu zuten. Aisia honek, beraz, pentsatzeko parada eskaintzen dio gizakiari, premiazko gauzak hornitzeko beharretatik aldentuta. Eta horrela mundua beharrak asetzeko tresna ikustetik, miresteko zerbait ikustera pasa ziren antzinako greziar pribilegiatuenak. Eta, aipatu dugun bezala, mirespenak jakin-mina sortzen du, Filosofia alegia. Politika Filosofiaren atal bat da eta, arlo honetan, Etikari buruz esan duguna areagotzen da. Izan ere, Platonen eta Aristotelesen proposamenak erabat aristokratikoak dira. Lehenengoak klaserik gabeko gizartea baztertzen du berehala, utopikotzat joz. Bere argudioa jendearen nahietan oinarritzen da. Nahi hauek oinarritzakoak baino gehiago direnez, hiriko biztanle kopurua gehitzen da, lur-eremu handiagoaren premia sortarazten delarik. Lur-eremu hori lortzeko auzokideei kendu behar zaie horretarako gerra eginez, eta gerra egiteko armada eta bera zuzentzeko gobernariak ere behar dira. Horrela hiru klase agertzen dira: langileena, gerlariena eta gobernariena. Behin errealitatean jarrita falta zaiguna da nola antolatu estatu hau justua izateko. Platonen erantzuna da justizia nork berea izatean eta egitean datzala eta honek, praktikan, gobernariak edo, gauza bera dena, filosofoek estatua antolatu behar dutela suposatzen du, beste gainerako biztanleak agintetik urrun mantentzen direlarik. Teorian gobernariak hautatzeko metodo inpartziala proposatzen zuen Platonek: heziketa. Baina heziketaz diotenak bere klasismoa argitan usten du. Izan ere, heziketa ez da, berarentzat, zerbait irakastea, nork bere baitan daukana agerrarazteko laguntza baizik. Beraz, eta gizakia eta etikari buruzko teoriarekin bat eginez, bakoitzaren izaera, honi dagokion etika eta gizartean bete beharreko tokia ere jatorrizkoak dira eta, horregatik, aldaezinak, hots, patuak ezarria bezala onartu behar den zerbait. Honekin hala hiritar arrunten konformismoa, nola gobernarien indarraren erabileraren justifikazioa bultzatzen da. Aristotelesek, bere aldetik, antzeko zerbait planteatzen digu. Berak ere jatorrizko izaeraz hitz egiten du, bi bereiztuz: esklaboena eta libreena. Lehenengoei, noski, obeditzea dagokien bitartean, bigarrenei, ordea,

agintea. Horrela izanda, Polis edo estatua naturala dela esango digu, etxea eta herria naturalak diren bezala baina hauek baino lehenagokoa. Ondorioz, bakarrik hauetan lor dezake gizakiak bere garapena eta bere zorientasuna, hots, bere bertuteak betetzea eta bere adimena jardutea. Baina zorientasun hori ez da denon irispidean dagoen zerbait, gutxi batzuk, benetako hiritarrak, lor dezaketena baizik. Eta hauek, noski, gerlariak, epaileak eta apaizak dira, ez langileak. Aristoteles -Tuzididesekin batera- zientzia politikoaren fundatzailea kontsideratua izan da, zeren izandako gobernamentu-mota askoren deskribapena egin baitzuen. Honetan oinarrituz sei gobernamentu-mota bereizten zituen: monarkia, aristokrazia eta demokrazia -onenen artean- eta tirania, oligarkia eta demagogia -txarren artean-, azken hiruak lehenengo hiruen usteltzea liratekeelarik.

Marxek zioen bezala, bi pentsalari handi hauen idatzietan islatzen da zer nolako egitura soziala zegoen, errealitateari buruz duten kontzientzia errealitate materialarekin -egitura ekonomikoarekin- bat zetorrelako. Biok eskaintzen dute errealitateari buruzko interpretazio bat baina ez digute ematen errealitate hori eraldatzeko biderik edo, ematen dutenean, bide hori utopikotzat jotzen dute. Gaia ez da haiek pertsonalki kritikatzeko, baina bai adierazi zituzten ideiak kolokan jartzea. Eta biok akats berbera izan zuten: justifikatu gabeko eta, beraz, suposatutako jatorrizko izaerak defendatzea, honek dakartzan ondorioekin. Izan ere, ahaztu egin zituzten -edo ez zituzten kontuan hartu- giza inguruneak dituen eraginak; egin zituzten proposamenak haien egoera pertsonala defendatzeko edota hobetzeko ere izan ziren; justifikaziorik gabeko abiapuntu horretatik gutxi batzuentzako etika eta politika eraiki zituzten esklaboak, emakumeak, umeak eta langileak ezintasunaren infernura bidali zituztelarik. Eta arrazoia hainbeste defendatu zuten pentsalariei ezin zaie barkatu arrazoirik gabeko ideiak plazaratzea. Azken hau bera da Bertrand Russellen iritzia: “Antzinako filosofoek, Platon eta Aristoteles barne, ...justiziari buruzko kontzepzio ezberdina zuten. Pertsona eta gauza bakoitzak berezko eremua zutela pentsatzen zuten, eremu hori gainditzea injustua izango zelarik. Gizaki batzuk, duten izaera eta ahalmenagatik, besteek baino eremu zabalago dute eta zorientasunean parteharmen handiagoa izateagatik injustiziarik ez dago. Aristotelesek doktrina hau *suposatutzat* jotzen du...”.